



## *Ormaiztegui Udala*

Udal1-batzarre  
O-20.11.05

### **2020ko azaroaren 16ko UDALBATZA OSOKOAREN BATZARRE OHIKOA**

ORMAIZTEGIIn, 2020ko azaroaren 16an, arratsaldeko 19:00etan, urrutiko konekzioaren bitartez, Udalbatza Osoa biltzen da, Jon ENRIQUE GALARZA alkate jaunaren lehendakaritzapean BATZARRE ohikoa lehen deialdian egiteko asmoz, behar den forman eta alde zuzenetik Udalkide bakoitzari igorria izan zaion AZTERGAI ZERRENDAREN arabera.

Batzarreratzen dira ondoko Udalkide Jaun/Andreok:

- Dunixi MURUA ANTIA Jna.
- Juan LOBATO AMADO Jna.
- Ione USABIAGA ARRATIBEL And.
- Aitor OKARIZ ELORTZA Jna.
- M. Lierni YURRITA ARREGI And.
- Garazi HACH EMBAREK IRIZAR And.

Idazkaria:

- Begoña Antxustegi Bengoetxea And.

Ez dira agertzen, bere ezagertzea desenkusatuta:

- Inor ez.

Ez dira agertzen, bere ezagertzea desenkusatu gabe:

- Agustín GILABERT MOLINS Jna.
- Asier ETXARRI ESKISABEL Jna.

Segidan Lehendakariak hasiera ematen dio bilerari, Udala osatzen duten eta dagozkion kideetatik herena bertaratu denez eta, ondorioz, gutxiengo quorum-a gainditzen denez.



## Ormaiztegui Udala

Udal1-batzarre  
O-20.11.06

...//...

### **LEHENENGO PUNTUA:** **AURREKO OSOKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Idazkariak udalkideen esku jarri ditu aurretik posta elektronikoz bidalitako aktak. Eztabaida ireki da eta ez da oharririk edo aldaketa eskaririk egin. Bozkatzeari ekin zaio eta aho batez onartu dira 2020.09.21eko eta 2020.10.19 Osoko Bilkuren aktak.

### **BIGARREN PUNTUA:** **ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

Alkatetzaren R-20/343 Ebazpenetik R-20/410 Ebazpenera doan zerrenda jarri da zinegotzien esku eta Idazkariak galdetu du ebazpen horien inguruko azalpenik eskatu ote nahi duen inork.

Ez da galderarik edo bestelako ekarpenik izan eta hurrengo puntua aztertzeari ekin zaio.

### **HIRUGARREN PUNTUA:** **«GOIERRIKO EKIMENA, SA»-REN KAPITAL GEHIKUNTZAREN ONARPENA**

Idazkariak alkatearen erabaki proposamena udalkideen esku jarri dun ondoren azaltzen den edukiarekin:

“Iker Galparsorok «Goierriko ekimena, SA» den sozietate publikoaren zuzendari orokorrak sozietatearen kapitalaren zabalkuntzaren beharrari buruzko idatzia aurkeztu du, laburbilduta honakoa dioena:

Goiekiko kontuak Beasaingo udalean kontsolidatzen direnez, hainbat eragozpeni aurre egin behar izaten dio, Goiekik hitzartu behar izan duen azken maileguak eragindakoa, adibidez, zeinen ondorioz, Beasaingo udalak plan ekonomiko finantzario bat egin behar izan duen 2020-2021 urteetarako.

Egoera honi irtenbide bat emateko bi proposamen aztertu dira: kapital zabalkuntza bat egitea, aipatu mailegua amortizatzeko hain zuzen ere, edo/eta mankomunitate izaera eman eta berau sortzeko bideari ekitea.

Goieki, SA-ko Administrazio Kontseiluak, udal guztiekin adostu ondoren, erabaki du Kapital zabalkuntzari berehala ekitea eta aldi bere mankomunitate izaerara egokitzeko azterketakin jarraitzea.

Osoko Bilkurak du eskumena «Goierriko ekimena, SA» den sozietate publikoaren kapital zabalkuntza eta ondare-ekarpenak onartzekoa, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 b) eta f) artikulua xedatutakoari jarraituz.

...//...

O-20/11-02



## Ormaiztegi Udala

Udal1-batzarre  
O-20.11.07

...//...

### Gaiaren azterketa

#### Aurrekariak

Ormaiztegi Osoko Bilkurak, 1993an erabaki zuen «Goierriko ekimena, SA» sortzea eta erabaki horren bidez, hainbat zerbitzu kudeatzeko ardura eman dio sozietate publikoari, eta sozietate hori ezaugarri jakin batzuekin eratu zen, besteak beste, kapital-osaerarekin.

Estatutuen 2.artikuluaren arabera, sozietate publikoaren xedea da, besteak beste, «Goierrri eta berau osatzen duten udalerrriak sustatzeko interesgarriak diren jarduerak egitea; enpresa-, turismo-, negozio-, ikerketa- eta prestakuntza-jarduerak».

Ormaiztegi Udalak aurreko ekitaldian plan ekonomiko-finantzarloa onartzeko betebeharrak izan duen arren, 9/2020 Foru Dekretu-Arauak, azaroaren 10ekoak, Gipuzkoako toki entitateei aplikatzekoak diren ezohiko eta presazko finantza neurriak buruzkoak, baimentzen dituzten ondare-ekarpenak egiteko eta sozietate instrumentalen kapitalen zabalkuntza edo ondarezko ekarpenak egiteko; Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarriaren eta apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 95. artikuluan aurreikusitakoaren gainetik.

### ERABAKI PROPOSAMENA

**Lehenengoa.-** «Goierriko ekimena, SA» sozietate baltzuari kapital gehikuntza hauek egitea:

5.048,40 euroko udalak sozietatearen aurka duen kredituaren kargura eta 28.385,23 euroko eskudiruko kapital sozialaren ondare ekarpena egitea onartzea.

**Bigarrena.-** 28.385,23 euroko ordainketa egitea. Ordainketa hau gauzatu ahal izateko, egina da dagokion Kreditu Aldaketa.

**Hirugarrena.-** «Goierriko ekimena, SA» sozietate baltzuari jakinaraztea eta enpresa-sektore publikoaren egitura berrikustea eskatzea, mendeko merkataritza-sozietateen finantza-orekaren kontrola bermatu ahal izateko.”

Ondoren, idazkariak gogora ekarri du Ogasun Batzordeak, ahobatezko adostasunez, erabaki proposamen honen aldeko irizpena eman zuela joan den azaroaren 11n egindako saioan.

...//...

O-20/11-03



## Ormaiztegui Udalak

Udal1-batzarre  
O-20.11.08

...//...

Eztabaida ireki da eta, ekarpenik ezean, bozketa egin da eta Osoko Batzarrak, ahobatezko adostasunez, erabaki proposamena onartutzat eman du.

### **LAUGARREN PUNTUA:** **ERREGUAK ETA GALDERAK**

Alkate jaunak aurretik posta elektronikoz zinegotzi guztiei helarazitako mozio proposamena aurkeztu du herrian azaroaren 13an izan zen gertakariaren inguruan, hitzez hitz honela dioena:

"2020ko azaroaren 13an ezezagun batzuek eraso egin zioten Laboral Kutxak Ormaiztegin duen sukurtsalari, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak jakinarazi zuenez eraso 06:00etan izan zen. Ezezagunek etxean egindako lehergailu bat jaurti dute, eta sute txiki bat eta sukurtsaleko kristal bat hautsi dituzte. Bulegoaren fatxada belztuta geratu zen. Gainera, Iñaki Bilbao Txikito ("txikito SOS") presoaren aldeko pintadak egin dituzte.

Honen aurrean aurkezten dugun

#### MOZIOA:

Ormaiztegui Udalbatza osatzen dugun talde politikook publikoki salatu eta gaitzesten dugu Laboral Kutxaren bulegoaren aurka lehergailuz egindako atentatua.

Horrelako indarkeriazko ekintzek ez dute zentzurik, eta ez dute lekurik gaur egun bizi dugun abagunean eta gizartean, are gutxiago gure herrian. Bide luzea egin dugu herri bezala bizikidetzan, eta horrelako ekintzak gure herrian gertatzea lotsatu ezezik arduratu ere egiten gaitu.

Gure ustez, protesta edo aldarrikapen-ekintza oro legitimoa da, betiere legitimoki aurreikusitako bideen barruan eta metodo baketsuen bidez gauzatzen bada.

Ekintza hau aurrera eraman dutenak ez gaituzte herri gisa ordezkatzan, eta herritar guztien izenengan esan nahi diegu Ormaiztegin ez dutela lekurik.

---

La sucursal de Laboral Kutxa en Ormaiztegui fue atacada por desconocidos el pasado viernes 13 de noviembre de 2020, según informó el Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco. Desconocidos lanzaron un artefacto casero, provocando un pequeño incendio y la rotura de un cristal de la sucursal. La fachada de la oficina quedó ennegrecida. Además, realizaron pintadas a favor del preso Iñaki Bilbao Txikito ("Txikito SOS").

Ante estos hechos, presentamos la siguiente

...//...  
O-20/11-04



## Ormaiztegi Udala

Udal1-batzarre  
O-20.11.09

### MOCIÓN

Los grupos políticos que formamos la Corporación de Ormaiztegi denunciamos y condenamos públicamente el atentado con explosivos contra la oficina de Laboral Kutxa.

Este tipo de actos violentos no tienen sentido y no tienen cabida en la sociedad en la que vivimos hoy en día, mucho menos en nuestro pueblo. Hemos recorrido un largo camino en la convivencia como pueblo, y este tipo de acciones no sólo nos avergüenzan sino que nos provocan una gran preocupación.”


Eztabaida ireki da baina adostasuna agertu dute zinegotzi guztiek, hortaz, bozketa egin da eta ahobatez onartu da mozioa.

Ondoren, Garazi Hach Embarek zinegotzi andreak adierazi du Marokoko ejerzitoak Mendebaldeko Saharan, El Guerguerat-eko asentamendu zibilaren aurka, egin duen eraso gaitzesteko mozio proposamena aurkezteko asmoa duela EH BILDUko udal taldeak hurrengo Osoko Bilkuran, baina bitartean Udalak adierazpen bat egiteko modua izan daitekeela Udaletxeko balkoian Saharako bandera jartzea.

Eztabaida ireki da eta alde agertu dira zinegotzi guztiak. Ondorioz, bozkatu eta ahobatez onartu da Saharako bandera Udaletxeko balkoian zintzilikatzea.

Bilkuraren puntu honetara iritsita, 19:25 ordu direnean, bilkura amaitutzat eman da.

Eta nik, Idazkari-Kontuhartzailea naizen aldetik, horren akta egin eta ziurtatzen dut bertan esandakoa leial jasotzen duela.



Ormaiztegin, 2020ko azaroaren 17an.

Idazkaria-Kontuhartzailea,

Sin. Begoña Antxustegi Bengoetxea

...//...

O-20/11-05



## Ormaiztegi Udala

udal-1-batzarre  
O-20-11.09

...//...

Udal Pleno Osokoaren kontsideraziora ezarria izan delarik **2021eko urtarrilaren 18ko Batzarre Ohikoan** honako Akta-Minuta hau eta aurkeztua izan den eran onartua gertatzen da.

Ormaiztegin, 2021eko urtarrilaren 20a.

Lehendakariak,



Idazkari-Kontuhartzaileak,